


Errautsetatik jaio zen odontologia forentsea



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Paris, 1897ko maiatzaren 4a. Hiri-ko goi mailako klasea Karitate Bazarrean bildu zen, azken urteetan bezala. 1885ean hasi ziren ekitaldia antolatzen eta ordurako Paris-ko egutegi sozialeko datarik nabarmenetakoa zen. Aberatsek zenbait artelan, liburu eta purtzileria saltzen eta erosten zituzten, gehien behar zutenei emateko, eta, bidenabar, beren posizio soziala harro agertzeko. Urte hartako azokarako 80 metro luze eta 20 metro zabal zen egurrezko barrakoi bat eraiki zuten, eta estalkia oihal bidezkatuz egin zuten. Barrakoiaren alde batean asmakizun berri bat jarri zuten bisitariak erakarri eta entretenitzeko: zinematografoa.

Baina tramankulua ez zebilen ondo; teknikariak esana zuen aireztatze egokirik ez zegoela. Eta 16:15ak aldera, zinematografoaren eterezko lanpara itzali zenean, langileak pospolo bat piztu zuen zer gertatu zen ikusteko. Pospoloak eztanda txiki bat eragin zuen eta, berehala, suak hartu zuen barrakoi guztia. Ate birakariak trabatuta geratu ziren, eta erreta hil ez zirenak zanpatuta hil ziren.

Guztira 126 izan ziren hildakoak, horietatik 120 emakumezkoak. Egia da ekitaldiak emakume gehiago bildu ohi zituela –hala ere, ez proportzio horretan– eta haien soinekoek suari mesede eta ihes egiteko mugimenduei kalte egiten zieten. Baina gizonezko gehienek nahiago izan zuten “emakumeak eta haurrak lehendabizi” kontzeptua



LE PETIT JOURNAL

beste baterako utzi. Hasieran agintariak anarkistei egotzi nahi izan zieten errua, baina istripua izan zela garbi zegoenez, zinematografoa maneiatzen ari zen langileari zortzi hilabeteko kartzela zigorra ezarri zioten; gerora zigorra kommutatuko zioten, hark bai, hainbat pertsona salbatzeko ahalegina egin zuelako.

Baina erantzukizunak banatzeaz gain, beste lan bat ere bazuten: kiskalita-ko gorpuak identifikatzea. Eta goi mailako damek soinean zeramatzen bitxiak ez zuten horretarako balio, gau hartan bertan gorpuak arpilatu zituztelako. Goi mailako biktimen senitartekoez soluzio bat behar zuten. Karitate itxurak egiteko prest zeuden, baina ez damak eta neska-

meak nahastuta ehorzteko. Eta irtenbidea Paraguaiako kontsulari bururatu zitzaion: hildakoen dentistengana jotzea, haien hortz-haginen fitxak eskuratu eta hildakoen hortz haginekin alderatzeko. Horrela identifikatu zituzten, besteak beste, Sofia Karlota Bavariakoa –Austria Hungariako *Sissi* enperatrizararen ahizpa–, Espainiako kontsularen emaztea eta odontologia zerbitzuak ordaintzeko gai ziren aristokraziako eta burgesia-ko beste hainbat kide. Haginlaria ordaindu ezin zuten biktima txiroak hobi komun batean ehortzi zituzten.

Eta, hala, Karitate Bazarrean errautsetatik, eta klasismotik, odontologia forentsea sortu zen. ●

Zoru irradiatzailea Erromatar Inperioan

Cambodunum eromatar aztarnategia (Kempton, Alemania) ikertzeko azken kanpaina, arkeologoak etxebizitza partikular bat industen aritu dira. Bi solairuko eta 800 metro koadroko luxuzko etxe horretan, fresko ederrak eta hainbat bainugela pribatu topatzeaz

gain, zorua berotzeko sistema sofistikatu bat ere aurkitu dute. Bestela esanda, asmakizun oso berria iruditzen zaigun arren, duela 2.000 urte inperioaren iparraldeko biztanleek –gutxi batzuek, jakina– zoru irradiatzailea zeukaten etxean. ●

